

COVID-19: uren kontrolerako alerta sare estatala sortu dute

Krispinako araztegia uren kontrolerako sare estatalean laginak hartzeko guneetako bat da; sarea orain dela gutxi sortu da, COVID-19aren hedapenaren alerta goiztiarraren adierazle epidemiologiko moduan.

Xedea izanik osasun agintariei ohartaraztea gaixotasunaren hedapenari buruz, sareak **hiri ur zikinen 30 araztegi** kontrolatzen ditu guztira estatuko lurraldean, eta beste hamar bainu gune barrualdeko zonetan, horien artean egonik Urbarri Ganboako urtegia, Burgun.

Proiektuaren helburua da infektatutako pertsonak dauden identifikatzea, araztegi sarrerako uretan SARS-CoV-2aren RNA zatien presentzia analizatuz. Gainera, 5 astean behin, araztegi irteeran, tratatutako uraren lagin bat ere gehitzen da, egiaztatzeko birusaren hondarrik dagoen eta araztegi prozesuan zer portaera duen ikusteko. Asteroko laginak uztailaren 20an hasi ziren hartzen.

Sareko araztegiak hautatzeko kontuan hartu diren irizpideak dira udalerrien arteko mugikortasuna eta interkonexioa, turista kopuru handia egotea, gaixotasuna azkar hedatzeko joera duten udalerrak izatea, gaixotasunaren inpaktua edo klimatologia.

Proiektua Trantsizio Ekologikorako Ministerioak eta Osasun Ministerioak garatu dute, eta parte hartu dute, baita ere, Ikerketa Zientifikoen Goi mailako Kontseiluak (Zientzia Ministerioa), Obra Publikoen Azterketa eta Esperimentazio Zentroak



(CEDEX) eta erkidego autonomoek (Euskadin, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, URA eta sarea kudeatzen duten erakundeak). Asmoa da datuak trukatzeko plataforma bat sortzea, osasun agintariei erabiltzeko, zeinean Europan zein erkidegoetan garatutako antzeko proiektu eta azterketetan lortzen diren emaitzak integratuko baitira.

Arreta: gehiegi kontsumitzeko arriskua

Eguraldi ona etortzearekin bat, gerta daitekeena da ur kontsumoak gehiegi handitzea, urteko gainerako zatietan ohikoak ez diren erabilerengatik. Jarduera ludikoak eta aisiakoak ugaritzea, baratzeak eta berdeguneak ureztatzea, igerilekuak instalatzea eta mangera gehiegi erabiltzea mehatxua dira uraren kontsumo arduratsurako.

Ura xahutzeko arriskuak bi etxebizitza motari eragiten die bereziki: landa inguru-reetako populazio guneetan daudenak eta familiabakarrekoak, horiek, askotan, herri txikietan egoten direlarik. **2019ko datuen arabera, AMVISAK hornitzen duen landa inguruneko batez besteko ur kontsumoa 357 litrokoa izan zen etxeko eta eguneko, hiriguneko kontsumoa baino %50 gehiago, eta %150era iristen da udako hilabetei erreparatzen badiegu.**

Horregatik, AMVISA informazio gutunak bidaltzen hasi da, landa ingurunean etxea izanik, eguneko 400 litro baino gehiago kontsumitzen duten abonatuak, eta aholku praktikoak eman dizkie ur instalazioan egon daitezkeen arazoak atzemateko eta konpontzeko, eta ahal dela udako kontsumo neurrigabea murrizteko. Iaz antzeko informazio kanpaina bat egin zen hiriko familiabakarreko etxeei zuzenduta, eta, aurten, AMVISAK landa inguruneari jarri dio arreta, izan ere, ingurumen alderdiez gain, argudio teknikoak daude kontsumoak kontrolatzeko premieren inguruan, udalerririk horiek arriskuan ikusi dezaketelako jasotzen duten zerbitzuaren kalitatea, hornikuntza sistemak dimentsionatzeko erabili zirenak baino askoz ur homidura handiagoak eskatzen dituztelako.

Gogoan izan, udan:

- Mugatu ureztapena behar-beharrezkoa denera, sistema efizienteak erabiliz.
- Saihestu mangera neurririk gabe erabiltzea jolasetan, eta patioak edo ibilgailuak garbitzean.
- Mantendu egoki ur kontsumoaren instalazioak, esaterako, ureztatze sistemak edo igerilekua. Kasu horretan, doitu ur berritzea araudiak markatzen duen minimora.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu.

Hauxe da helbidea:

info@amvisa-futura.org

